



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2019/05/19

## **“XX. mendeko legatua. Etorkizunerako ondarea”, Enkarterrietako Museoaren kultur ibilbide barria domeka honetan, maiatzaren 19an**

Bizkaiko Batzar Nagusien esku dagoan Enkarterrietako Museoak “XX. mendeko legatua. Etorkizunerako ondarea” izeneko kultur ibilbidea antolatuz ospatu dau Museoen Nazinoarteko Eguna, maiatzaren 19an, domeka honetan. Museoan ikusgai dagoan “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketea ezagutu ondoren, joan dan gizaldiaren erdialdean eregitako eraikin bi bisitau dira: Sollanoko (Zalla) ur araztegia eta Arangurengo (Zalla) Sortzez Garbiaren eleizea. Juan de Madariaga eta Lander Gallastegui arkitektoek diseinatu eben estilo funtzionalista daukan araztegia, eta 1962. eta 1966. artean egin zan. Sortzez Garbiaren eleizea Emiliano Amann arkitektoak egin eban. 50eko hamarkadako estilo modernistakoa da eta 1952. eta 1956. artean eregi eben.

Pérez de la Peña ikerlariak zuzendu du kultur ibilbidea. Ibilbidea goizeko 10:00etan hasi da Enkarterrietako Museoan, eta leku berean bukatu da 14:30etan, “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketara egindako bisita gidauaren ostean eta domeka honetarako aukeratutako eraikinak ezagutzera autobusez joan eta gero.

Enkarterrietako Museoak, eskualdearen ondare arkitektoniko garrantzitsua erakusten dau joan dan martiaren 8tik, “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketan. Gorka Pérez de la Peña historiagileak lau urtez egin dauen ikerketa lana jasoten dauen erakusketa hori osatzeko, Museoak kultur ibilbideak antolatu ditu, lehenengo erakusketea bisitetako eta horren ostean, Enkarterrin dagozan eraikin berezietako batzuk ikusteko. Horrez gain, Museoak erakusketarako bisita gidauak eskaintzen ditu asteburuetan; aurretik eguna eta ordua eskatu behar da.

### **HURRENGO KULTUR IBILBIDEAK**

#### **Bagilaren 9a, domeka: “Betirako ondarea. XX. mendeko hileta-arte”**

Ordutegia eta ibilbidea:

- 10:00. Enkarterrietako Museoa. “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketea bisitatzea
- 11:30. Balmasedako hilerria bisitatzea
- 13:00. La Herrerako hilerria (Zalla) bisitatzea
- 14:00. Carraleko hilerria (Sopuerta) bisitatzea
- 14:30 Enkarterrietako Museora itzultzea

**Urriaren 6a, domeka (Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Ondareari buruzko Europar Jardunaldiak): “Eliza eta jauregi artean jendea dibertitzen”**

Ordutegia eta ibilbidea:

-10:00. Enkarterrietako Museoa. “Enkarterri. 1870-1975. Arkitektura garaikidearen distira” erakusketea bisitatzea.

-11:30. San Cosme eta Damian eleizea bisitatzea (Beci. Sopena)

-13:00. Hierro-San Martin jauregia bisitatzea

-14:30 Enkarterrietako Museora itzultzea

**Doako jarduerak. Beharrezkoa da aurretik izena emotea 94 650 44 88 / 94 610 48 15 telefono zenbakietara deituz edo enkarterrimuseoa@bizkaia.eus helbidera idatziz**



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

19/05/2019

## **“Legado del siglo XX. Un patrimonio para el futuro”, nuevo itinerario cultural del Museo de las Encartaciones este domingo 19 de mayo**

El Museo de las Encartaciones, dependiente de las Juntas Generales de Bizkaia, ha celebrado este domingo 19 de mayo el Día Internacional de los Museos organizando el itinerario cultural titulado “Legado del siglo XX. Un patrimonio para el futuro”. Tras ver la exposición “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea” en el propio museo encartado, se han visitado dos edificios construidos a mediados del siglo pasado: la Depuradora de aguas de Sollano (Zalla) y la iglesia de La Inmaculada de Aranguren (Zalla). Los arquitectos Juan de Madariaga y Lander Gallastegui diseñaron la depuradora, de estilo funcionalista y que se edificó entre 1962 y 1966. La iglesia de La Inmaculada es obra del arquitecto Emiliano Amann. De estilo Modernidad de los 50, fue construida entre 1952 y 1956.

El investigador Pérez de la Peña ha dirigido este nuevo itinerario cultural. El itinerario ha comenzado a las 10 de la mañana en el Museo de las Encartaciones y ha terminado en el mismo lugar a las 14:30 horas, tras una visita guiada a la exposición -“Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”- y tras desplazarse en autobús para conocer los edificios elegidos este domingo.

El Museo de las Encartaciones muestra desde el pasado 8 de marzo el importante patrimonio arquitectónico de la comarca en la exposición “Encartaciones. 1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”. Para completar esta muestra, que recoge el trabajo de investigación realizado durante cuatro años por el historiador Gorka Pérez de la Peña, el Museo ha organizado itinerarios culturales para visitar primero la exposición y después recorrer algunos de los edificios emblemáticos que atesoran Las Encartaciones. El Museo ofrece además visitas guiadas a la exposición los fines de semana, concertando previamente día y hora con el museo.

### **PRÓXIMOS ITINERARIOS CULTURALES**

#### **Domingo 9 de junio: “Patrimonio para la eternidad. Arte funerario del siglo XX”**

Horario y recorrido:

- 10:00. Museo de Las Encartaciones. Visita a la exposición “Encartaciones.1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”
- 11:30. Visita al cementerio de Balmaseda
- 13:00. Visita al cementerio de La Herrera (Zalla)
- 14:00. Visita al cementerio de Carral (Sopuerta)
- 14:30 Regreso al Museo de Las Encartaciones

**Domingo 6 de octubre (Jornadas Europeas de Patrimonio organizadas por la Diputación Foral de Bizkaia): “Entre iglesias y palacios la gente se divierte”**

Horario y recorrido:

- 10:00. Museo de Las Encartaciones. Visita a la exposición “Encartaciones.1870-1975. El esplendor de la arquitectura contemporánea”
- 11:30. Visita a la iglesia Santos Cosme y San Damián (Beci. Sopuerta)
- 13:00. Visita al Palacio Hierro-San Martín (Sopuerta)
- 14:30 Regreso al Museo de Las Encartaciones

**Actividades gratuitas. Es necesaria la inscripción previa en los teléfonos 94 650 44 88 y 94 610 48 15 o a través del correo electrónico [enkarterrimuseoa@bizkaia.eus](mailto:enkarterrimuseoa@bizkaia.eus)**